AMAYUR

Adizkide batek euzkel toki-ixen onen itxoŕkunatzaz iŕandu daust. Gai oŕetzaz iñardun baño lenago ondo deritxat toki-edestija ta jazokun-edestija jaŕiŕia.

TOKIJA. "Maya", "Amaya" edo "Amayuŕ" Baztan'go ibaŕan dago. Eŕija lautadan eginda dago. Eŕitik gora egiŕen dan bide batek: Aide ori on-oñan jaŕiŕa daguan gaztelura dua Toki agirija ta jasua, bere bian baŕa daukana. Eŕija antxiña-antxiñakua da. Gazteluba andija ta indaŕ andikua ixan ezaŕen Nabaŕa'ko biaŕkixunetarako bai-zan alagalakua. Cisneros aginŕarijaren aldijan eratsi leben toŕia.

EDESTIJA. Labuŕ-labuŕ jazokunak edestu nai dantzaguz, irakuŕle, Nabaŕa'ko azkatasuna noiz amaŕu zan jakin dagixun.

Beŕeun nabaŕtaŕ ixan ziran atzenengoz gazteluba aldeztu lebena: geyenak odol argikuak ziran. Oneik ixan ziran agirijenak: Orbara'taŕ Jon, Belaz, Jatsu, Mauleon 'daŕ Biŕor eta Ageŕe'taŕ Jon. Orbara'taŕ Jon abeŕtzalia jauparija zan, eta Iruña'ko goteŕtxadoneko jaupari nagusija. Amayuŕ'ko gazteluban jaukiŕa legozanai amaikatxo uŕgazpide egin leutsezan.

Beŕeun nabaŕtaŕ ixan ziran atzenengoz gazteluba aldeztu lebenak: geyenak odol 'gaŕenan Ega'ko gaztelubaren aldez-egiŕen ixan zan. 1516'gaŕenan Nabaŕa azkatuteko asmoz Nabaŕa'ko gudalburubaz gudaldu zan: alpeŕik ixan zan gudate a Jagoba'ren gurasuak Palestina'ko gudaldijetan, be, argijak ixan zan. Iñaki ixan leben argijena. Eta Biana'ko eŕija aldeztuten Medrano'ko Belatz'taŕ Jon ixan zan urtena.

Belatz'taŕ Koldobika, Jagoba'ren semia gixon, oldaŕtsuba ixan zan Amayuŕ bezauta, be, azkenengo uneraŕte Nabaŕa'ren zintzo jokatu lebana.

Jatsu'taŕ Mikel, eta Jatsu'taŕ Jon anayak, Jabieŕ'eko jaunak ziran eta Pantzeska deunaren anayak. Pantzeska gartiena zan 1506'gaŕenan jayo zan, ba.

Mauleon'daŕ Biŕoŕ bakaldunen gudalburuba zan, napaŕtaŕ bakaldunen gudalburuba; bakaldunekin juan zan atzeŕira: eta gero alegin gustijak egin leuzan bakaldeŕija atzera lortuteko bakaldunentzat.

Ageŕe'taŕ Jon Etxalaŕ zaŕekua zan: Orbara'taŕ Jon'en adizkidia zan: oneik aŕtuten leuzan aren idazki gustijak.

Emen aipatu dodazan gudari gustijoik abeŕtzaliak ziran, abeŕijaren maŕaliak, ez españazaliak; ezpanazaliak gauŕko euzkotaŕ batzuk bakaŕ-bakaŕik dira.

Ageŕe Etxalaŕ'en daguan "Ageŕea" basetxian bixiko zan noski: "Ageŕea" etxe ori txadon onduan dago. Gauŕ ikusten dogun etxia ezta aldi atakua, bai-liŕeke baña zegozertxu aldatuta egota.

Bonibet, Pantze'ko gudalburuba, Amayuŕ aŕtuta, Ondaŕabi aŕtuten juan zan. Bidasoa igarota eŕaz aŕtu leban Bonibet'ak Ondaŕabi. Izpaŕoik Españа'n jakin zirala, gudaroztiak igitzen asi ziran. Amayuŕ'era juan barik baña Gipuzkua'ra saŕtu ziran. Amayuŕ'en gudalburuba Belatz'taŕ Jagoba zan. Jatsu'taŕ Mikel gaztelutik ataz urten zan Elizondo'ra an gudea egiŕeko. Mikel ainbat eta ainbat etsai jopu-egin leuzan.

Amayuŕ'ko gazteluban 1522'gaŕeneko urtaŕilatik epalara gauza gitxi jazo ziran España'ko agimenduna ta Pantze'ko bakalduna Italia'n eta Pantze'n guda gogoŕan lebiltzalako. Garila-4'gaŕenan nabaŕtaŕen etsayak Iruña'tik urten ziran Maya'rako. Mendijetan gudea egiŕen legozan nabaŕtaŕak gaztelu baŕura eldu ziran Abeŕija aldeztuteko. Garila-7'gaŕenan etsayen gudaroztiak Lanz'eko ibaŕan legozan. Pantze'tik gudarijak etoŕteko ziranaŕen etziran elduten. Gastelaŕak Belate'ra igo ziran, eta Beŕneta'tik Baztan'era saŕtu ziran. Garila-15'kaŕenan gastelaŕen gudaroztiak Amayuŕ'en legozan.

Gaztelu baŕuko abeŕtzaliak gitxi ziranaŕen bai-ziran eŕutsubak: egunetan antxe egon ziran Euzkadi'ko aŕkatxak bezela etsayen izkiluben danbaŕadak aŕtuten. ¡Arek ziran benetako abeŕtzaliak! Atzenian gazteluba etsayen eskubetan itxi leben. ¡Abeŕija, Abeŕi laztana!... "Jausi zara eŕbestepian"

卐 卐 卐

"Amayuŕ" tokijaren itxoŕkuna geure gardiz eŕaza da. Amaya-uŕ = el pico de Amaya. Ixenan bikija da. Lenengo atala zeinduŕia ezta gaitz-gatxa eŕi ori "Maya" edo "Amaya", be, bai-deretxo. Oŕegaŕik lenengo atala agiri-agirijan Amaya da.

Bigaŕen atala "uŕ" da. "Uŕ" ori itxoŕkunetan "pico" ta kidekuak ikuŕtuten dauz: galuŕ, mustuŕ, atxuŕ. Toki-ixenetan "pico" da baña goibel-ikuŕaz.

Amayuŕ = pico de Amaya.

Orain "Amayaren" itxoŕkuna ta ikuŕpena idoro biaŕ doguz. Itxoŕkuna auxe da: "ama" + i. Itxoŕkun au gauŕ argi-argi dikust. Ori baña gero argijago erakutsiko dautzut, ikuŕpena ondo jaŕiŕakuan.

¿Zer-ete da "ama" ori? "Ama" ta "amai" Arana-Goiri'ren ustez baŕdiñak dira toki-ixenetan eta "altura", "sierra" dikuŕe. "Amai cerro" ikuŕetik "fin" ikuŕera aldatu ei-zan.

Beste batzuk "amai" ori itxoŕkunetan, toki-itxoŕkunetan, "fin", "término" letz aŕtuten dabe. Geure ustez ezta egoki.

Egija da "ama,,'k tokijetan "altura", "sierra" dikuŕala: baña "meseta" egokijago tokijetatik agiri dan letz. Guketz "ama" ta "ama" eztira baŕdiñak: "amai ama,,'ren erabijakundia da: "amai" geyenetan ezta toki-ixenetan ikusten: baña ikusten ba'da, be, "altura" dikuŕ. "Altura" ikuŕpenetik elburu-ikuŕpena aŕtu dau = "fin", "término". Ama = meseta, altura; ama + i (nota determinante, "fin", "término", "límite", begijekaz auŕian dogun "amea" (altura, meseta), ba, atzenen ikusten doguna dalako, geure begijak andik auŕera ezer, be, eztabelako ikusten.

Amaya = amai + a; amai = ama + i.

Amaya = meseta, altura.

"Amayuŕ" = el pico de Amaya: Amaya = meseta, altura.

Auxe da gure ustia aratz eta garbi.

AGAREL.

Zuben Batzar Aurrian

Ondarroa'ko emakumiei

Aguŕ emakume-abeŕtzale maŕe-maŕiok: Aguŕ onek neure bijotzaren baŕu-baŕutik urteten daust zubek zorijondu nairik, zuben lanaren eskaŕ-ordañez-edo, zubekaz geldituta, aŕituta-edo, aŕitzekua da ixan be zuben lana-ta.

Antxiñatxu entzun geban eta aŕezkero saŕiŕan irakuŕi be bai, emakumiai bijotzez itz egin biaŕ yakoela, bijotzez ta gozo-gozo, maŕasunez, ba, loren antzekuak bai-dira, ta lorak zataŕki erabili ezkero, zataŕki asabili ezkero, zataŕki astinéu ezkero, lasteŕ galduten dira, lasteŕ ustelduten dira. Zubek be loren antzekuak zarienez, uskoŕak eta batera txukunak. Origaŕik, ba, laztankoŕ aŕtuten zaŕubegu gixonok, maŕekoŕ maŕagaŕijak zarielako.

Loreak zataŕki astindu ezkero galduten diran lez, zubek bere mindu egiŕen zarie, zubekaz olan egiŕen ba-dogu.

Ori olan dala, ta oindiñokaŕen be, gozuago egiŕiaŕen gaurkuagaŕik etzaŕubet zataŕki astinduko; eztago neure buruban, gauŕ, olako amesik.

Zelan aŕano oŕu leyo Ondaŕoa'ko gixon bateri bere eŕiko emakumiekaz gogoŕ egiŕia, ludi gustijan be ezpagendukez idiroko eurek lakorik?

Eta azkenengo itzau idatzi dogun ezkero, geuzatxu bat esan biaŕ dautzubet. Ezta neuria ta neuria ixan ezik, neuk asmaurikua bere ez. Eŕenderia'taŕ Goŕgoni ospetsubarena da. Eŕenderia'taŕ Gorgoni, Bizkai-alduna ta Euzkadi - Buru - Batzaŕa'ko lendakarija ixanarena da.

Gixon onek saŕiŕan egiŕen daustaz neuri alako gastiok saŕiŕan biaŕ ixaten doguzan "sermoyak". Pozik eta adi-adi egoten naz berari entzuten. Baña orain esatera nuana etzan "sermoya" ixan, neure belaŕijetan gozo-gozo saŕtu ziran goi - soñu antzeko itzak baño.

"Ondaŕutaŕak lako gixonik eztot ikusi nik, egiŕen eusten. Areik benetako kistaŕak dira ta euren emakumiak, ostera, eurek baño be onaguak dirala esan lei. 1922'gn. urteko iralaren 11'gn. egunian eldu gintzazan Ondaŕoa'ra Bizkai'ko aldunok Iñaki deunaren gorpuzkiñagaz, eta aŕituta gel diŕu nintzan. Pozaren pozez nenguan geure Deun Andi ari Ondaŕoa'k egin eutson abegijagaz, ongi-etoŕijagaz, eta negaŕari emon neutson neure bijotzaren sotiñei eutsiŕeko aña enintzalako."

Eta egija gixon bijozdun arek esana.

Zuberi eutsiŕekorik eztago asten zarienian, baña or dago, ba, untzia. ¡Asi egin biaŕ! Ori, gustijoi jazoten yakuna da. Asi egin biaŕ. Baña asiŕa gero ¿danok ete-gara bardiñak? Ez.

Zubek lakuak gitxi. Zubek eztaukazube

beste atxakirik asijerakua baño. Eta orain, asi zarien ezkero, benetan jaŕaŕu biaŕ dozube.

Urte-bete baño besterik eztaruazube zuben Batza oŕegaz ta ikusi, ¡ikusi egin biaŕ dira zuben lanak!

Gabonetan, lau zimera-janzki ta kumatxu bat zabaldu ziran abeŕtzale jayopaŕitxuben aŕtian.

Gabonetan be, 18 sendi-abeŕtzale-txiroei jaten emon yakoen.

Gabon-zaŕetan be bardin beste oŕenbesteri.

Jaupa bi esan dira il diran emakume abeŕtzale biren ixenian.

Tostaŕtekoei ikuŕiña emon zeuntsoen zuben anai-maŕasuna ageŕtuteko bezuzatzat.

Gorularijak be zubek jantzi dozubez.

Zeubentzako ikuŕin edeŕa be egin dozube.

Eta ondo asteŕtu ezkero beste gauza askotxu be idoro leikez. Esaterako, Etxaburu'taŕ Markel il zanian ,bere sendija txiro geldiŕu zala-ta zubek ixan ziñen sendi a jantzi zendubenak Bilatzen juan ezkero ainbat auŕkiŕu leikez. Guk eztogu zeregin ori aŕtuko, naikua gauzatxu ageŕtu doguz Euzkadi'ko abeŕtzale gustijak zuben lana txalotu dayen.

Neuk benetan txalotuten zaŕubet, baña txaluak amatu baño len gauzatxu bat esatia otu yat, uaŕtxu bat. Eta bijotzez eskatzen dautzubet ontzat aŕtu dagixubela neure uaŕau.

Astelenian ixango dozube zuben batzaŕa, ta batzaŕ oŕetan aizta onak lez zuzendu ondoren, eskatzen dautzube, eztagixubela bururatu Aŕiola'taŕ Eŕoberte, aŕtezkari-batzarako aututerik.

Neskatila zintzo-zintzo oŕek bere lana dagi. Zubek uste dozuben añako baño lan onuragaŕijagua ganera. Umien aldezko lanak eztauka ordañik. Oŕek umiekaz egiŕen daun lanak eztoguz ezegez bere ordaindukо, ezin ixango doguz ordaindu. Geuk eztakigula, geu bape be nekatu barik diñaŕdu oŕek, geure umiak, geure seme - alabak abeŕtzaletuten. Geuk eztakigula eŕiko ume gustijak abeŕtzaletuko dauskuz.

Ez bada orduban oŕi ikuturik be egin Itxi bakian bere aŕluan jaŕaŕu dayan, lan onuragaŕijagorik ezin lei egin emakume batek-eta.

¡Buaz, ba, zuben gustijon aŕtetik, neure txaluak beretzako!

¡Jaŕai, ba, Eŕoberte ta jaŕai Ondaŕoa'ko emakume-abeŕtzale zintzo-zintzubok! Zubek zainduko dauskuzube geuk gixonok baño be zintzuago abeŕtzaletasuna geure eŕi txukunian-eta. Zaindu, egin eta zabaldu.

Zorijonak, ba, ta jaŕai auŕera.

AŔTIBAI.

Etorkunde-Ostsko XI Igandia

SAŔKUNA. (67'g. Er.). Goiko Jauna bere toki deunian dago; Jaungoikua'ri zoŕ yako aburu batez etxian bixi al ixatia; beraxek emongo dautsaz indaŕa ta kemena bere eŕiiari.

Jagi bedi Goiko Jauna, ta banatu beikez aren arerijuak; goŕoto dabenak bere ageŕitik igesi buakez.

Aintza... Goiko Jauna bere...

OTOYA. Betiko Urtzi algustidun ori: aŕen-dagitzubenen irabazki ta eskarijak zeure eŕuki aundijaz aragotu daruazuz-ta zeure eŕukijoi ixuri egiskiuu, baŕunba aŕtegatuten dauskuben obenak aketsirik, guk eskatu ezin daikeguna, be, emon damoskeguzuntzat. Amaibako egunetan zeu ta Goteuna'rekin batez bakaldun bixi dan zeure Seme Josu-Kisto gure Jauna dala bide.

IDAZKIJA. Paul Beldu deunak korintoŕaŕai egindako Idazkiko irakuŕgaya (I, 15, 1-10).

Anayok: Nik iragaŕiŕa aŕtu leuzuben Goizpaŕa atzalduko dautzubet orain. Aretan dirauzube, ta bere bidez gaizkatuko zarae, ırakatsi leutzubedanetz eusten ba-dautsazube, beintzat; ostantzian alpeŕik ziñetsi dozube-ta. Ona, ba, lenen irakatsi lentzubedana, neronek ikasija: Kisto geure obenakaŕik il zan, idatziŕa eguanetz; ioŕtzi, ta irugaŕen egunian ilpiztu zan, idatziŕa eguanetz; ilpiztuta, Kepa'k ikusi leban, eta gero amaikak be, ba. Aŕezkero bosteun anai baño geyagok batez ikusi leben; eta euretariko batzu il ziranaŕen, geyenak oindiño bixi dira Geruago, Jagoba'ri ageŕtu yakan; eta ondoren, Beldu gustijai Azkenez ilor oni, be, ageŕtu yatan Beldubetarik txikaŕena bai'naz, ta Urtzi'ren Doibatza uxetu leudalako, beldu-ixen-gai, be, enaz. Nazanau, baŕiz, Jaungoikua'ren eskaŕez naz; eta bere eskaŕa ezta nigan alpeŕikua ixan.

MALAGUNIA. (27'g. Er.). Jaunagaz itxaron zan nire bijotza; eta lagundu nau, ta nire aragija zuzpeŕtu egin da; bijotz-bijotzez goralduko dot. I. Jaunoi: euri di daŕ-dagiskiat; ezakit entzungoŕ ixan, ene Urtzi; ezeikek nigandik alde-egin.

Aleluya, aleluya. (80'g. Er.). Ospatu Urtzi gure laguntzalia; goretsi eikezube Jakoba'ren Jaungua; ereskiñaz eresi-abestu Aleluya.

GOIZPARKIJA. Marka deunaren arauz ko Goizpaŕ-jaŕaikuna (7. 31-33).

Aldi aretan: Josu, Tuir - mugeŕijetatik urtenda, Sidon-bidez Galilai-aintzirara etoŕi zan, Amaŕurijeta'ko mugeŕijaz-zlaŕ. Eta goŕ mintxogia (mutuba) auŕkeztu, ta eskuba buru-gane iminteko leskatsaen. Eta Josu'k, gixatalde-aŕtetik ataraurik, bere atzamaŕak belaŕijetara saŕtu leutsazan; eta txu-egin eta miña ikutu leutsan; eta begijak goratu ta adija-egiñik.

"Effeta", edo "idiki adi", esan leutsan. Eta bertatik belaŕijak idiki, ta miña azkatu egin yakan, eta garbi itz-egiŕen leban. Iñorbati ez esateko agindu leutsen, baña, berak agindubago eurek ariago edasten (Iragaŕten) leben; eta aboruago txundiŕuta (geyago aŕituta, onan esaten leben: Ondo egin dau dana: goŕai entzunerazo ta mintxogiai itz-eragin dautse.

OPAKUNDIA. (29'g. Er.). Goraldu egingo aut, bai, Jaun ori, arerijuai neure lepoz poztuten itxi barik, jabon nekalako Jaunoi: dei-egin dauskat, eta sendatu nok.

OTOI IXILA. Zure otseñok adikoŕ begiŕu gagixuz, Jaun oŕek; gure opari oneik zeuri atsegingaŕi ta guretzat erbaltasunlagungaŕi datekezantzat. Amaibako...

JAUNAŔTZAKUA. (Sup. - Prov. 3) Ospatu Jauna eure ogasunakaz ta lenengo arnarijakaz; eta garayak bete-bete egingo yazak, eta tolareak ardauz ganezkatu.

JAUNAŔTZOSTEKUA. Zeure ikuŕtonau aŕtubaz gogo-gorputzentzako laguntzea nabaŕu daikegula iguzu, aŕen, Jaun oŕek; bitzubok gaizkaturik, goiko sendagaŕi betiaz poztu gadiŕezantzat. Amaibako...

卐 卐 卐

ERABAKIJAK. Enadin gogozko goŕ-mintxogia ixan. Jaunaren itxak adi entzungo dodan. Saŕitxu itz-egingo dautsat otoŕan.

Obendijak euren obenak zintzoro autoŕtu daikiezan, be, egunian-egunian otoitz egingo dot.

Josu-Kisto'k letz, dana ondo egiŕen alegindu biaŕ naz.

ATAŔIZBAŔNA.

Gaur Zumarraga'n

Zatui gañeko gurutz-pean,
Zumaŕaga nuan begi auŕean
Euzkadi nere gogo-biotzean
aŕats goŕi, bare batean.

Aŕats goŕi batean, nere mendi zaletasunak bultz egiñik, Zatui gañeko mendi gaĺuŕa menderatu nuan. Mendiak dun goxoa, goiz sentiko intzetan oartzen dala edertasun eta alaitasun bezakin guziak diote. Goizeko argia izaki berdingabea. Lenengo izpiak zalegaŕienak. Goiza da mendirako egiña zalentzarik gabe. Ala aitortu beaŕ. Baña, ori ala zan aŕen, aŕatsaldean ere, kale zuloko ore ustel zimela baño, gure ekandu garbien abeslari diran mendi tontoŕeko. zugaitz bitaŕtetik datoŕen aize goxoa, osasugaŕiagoa dala ez diet iñoŕk ezeztuko. Goizean edeŕ danak aŕatsaldean ere badu bere mamia; berekin goizeko usaya.

Ala oldozten nuan nik, egun bero zimel artako aŕats goŕian. Zatui gañeko Gurutz-pean nuan nere soña. Nere begien ikusmena, Zumaŕaga'ko eŕi txukunean: Beloki gañeko Gurutzea'n. Eta nere inguruan zan luŕalde maitea buruan; Euzkadi nere Abeŕia gogoan. Ase betezko aŕats goŕia, zimel aizeari Igeska igaro nuana.

Gauŕ idazki ezerez au osatu nairik asitzean, aŕats goŕi artako oldozmenak ber-berak nituan nere baŕuan. Igaro diran egunetan ainbeste abeŕtzalek izan beaŕ zuten eta izango zuten Zumaŕaga det nere irudipenean.

Zatui gañeko Gurutzeak gordetzen gaituan legazpiaŕak, ezin egon giñazkean aaztuŕik, nere begien ikuskaŕi izan zan Beloki gañeko Gurutzak zaitzen dituan zumaŕatataŕakin. Gauŕko egun gogoragaŕi onetan, abeŕtzale bezela oldozten degun legazpiaŕak ez beintzat. Zordun izan ez ba-giñan, gauŕ berakin izatea gure egitekoa zan eta geran bezela zordun izanik biŕitan.

卐 卐 卐

Euzkadi nuan nere gogoan. Orain ogeita bost urte dirala lenengo Gipuzko-Buru-Batzaŕa autatu zuten Jaun bulartsu eta txalogaŕi ayek gogoan izan zuten Euzkadi ura ber-bera. Orain ogeita bost urte ain baztertua eta gauŕ aintzakotzaz artzen asi diran Abeŕi oinpetua. Eta gauŕ abeŕtzale guziak, ogeita bost urte auŕetik gure lenengo zuzentzaleak zeramaten biotzaren berotasunakin Zumaŕaga'ra itzuli beaŕ dute. Euzkadi eta bere azkatasuna dituztela gogo biotzetan.

Ogeita bost urte luzeetan buŕuka bizian auŕera garaile azaldu diran benetako abeŕtzaleai gure eskeŕ-erakutsia aunditasun osoakin azaldu beaŕ diogu. Euzkadi eta euzko-izatea buruan zutela, mendi aldera nere oroipeneko aŕatsean bezela, itxaropen txiki eta biotz aundi batekin, euri eta abaŕ jasa neketsuan igo eta lenengo Gipuzko-Buru-Batzaŕa autatu zuten abeŕtzale eŕemiai poz bat ematera beartuak gaude, gaurdañoko neke guztiak aztu erazteko. Oraindik gurekin bizi diranai, gauŕ Zumaŕaga'n bildurik txalo sutsu bat jo eta berak erein zuten aziaren igali ugaria beren begien pozkaŕi azalduaz. Beste bizitzara arte aguŕ egin zigutenai beŕiz, biotzetik otoi bana jasoaz, ainbeste neke igaro zuten gogoen atsedenerako.

Ogeita bost urte lenengo Gipuzko-Buru-Batzaŕa izentatu zala. Euzkadi bere azkatasunaren biĺa oinkada sendoan dijoala, ogeita bost urte. Aldi txikia egin degun auŕeratze aundiarentzat. Atzo gelatxo bat eratu eziñik maitasun bateko biotzak alkartzeko; gauŕ batzokirik ikusgaŕienak ditugu. Atzo iru edo lau zentzu-gabe: gauŕ denak zoratuta. Atzo bilduŕez Euzkadi aitortezko; gauŕ besteak dira bilduŕdunak Atzo biotz batzuen deadaŕa zan; gauŕ umetxutarañoko guziak eskatzen duten eskubidea... eta biaŕ iñoŕ menderatuko ez duan indaŕa.

Gauŕ Zumaŕaga'n biltzen diran abeŕtzaleai besarkada estu bat luzatzen diet. Gauŕ erdera saŕi entzun izan degun eŕian, euzko-abestiak baño ez dira izango; euzkera garbia baño ez da entzungo. Eta gauŕ aize jatoŕ eta benetako euzko-aizeak, biaŕko bide beŕiak zabalduko ditu. Gauŕko aizeak aspaldian zimeltzen asi ziran oŕitxoak lur jota utziko ditu, beŕi edeŕago batzuekin estaltzeko. Euzkadi euzko-ostroaren kereiza bakaŕik beaŕ degu eta asko da.

Gauŕ, apal eta makuŕ agertzen diran dantzari gazteen buru gañetik euzko-ikuŕiña lerden igarotzean, gomutatu zaitez igarotakoakin eta indaŕ-beŕitu etoŕkizunerako. Gauŕ ikuŕin-pean makuŕturik ikusiko dezun gastedia egun batean ernai jeikiko da ikuŕin oŕen ondoan bera aldeztuaz Euzkadi azkatzeko.

Nere aŕats goŕian bezela, abeŕtzalea, izan zazu zuk ere gauŕ Zumaŕaga begien auŕean eta Euzkadi beti gogo biotzean.

OLARI.

Kalasanz'tar Joseba Deuna

Peralta de la Sal deritxon Aragon'go uritxu baten jayo zan deun au 1559'gaŕen urteko irala'ren 11'an. Onen gurasoak kistaŕ zindoak ziran eta kistaŕ-gogoa ugatzaz batera erodoski eutsoen semetxuari. Bost urtegoz aiztoa eskuan ebala urten ei-zan bein baten etxetik, gizonak Jaungoikoa iraintzeko zirikatzen dauzan txeŕena (deabrua), aizto-ukaldiz il egin beaŕ ebala-ta. ¡Umekeria, baña Josebatxu eŕugabearen baŕena darakuskun umekeri bitxia! Uruezale ta txiro maitale andia izango zala gaztetatik erakutsi eban. Joseba'k, bere adiñeko umetxuak batu ta lander asi kistaŕ-Ikasbidea ta otoitzak irakasten beste ezetan baño pozago ibili oi zan-ta.

Latera ikasteko Estadilla'ra bialdu eben gurasoak eta bere ekandu onez eta ikasteko gogo biziz irakasle ta ikaskideen biotzak lasteŕ irabazi ebazan mutil adikor eta zintzo onek. Jakintza batzuk Lerida'n ikasi ta gero, Valencia'ra joan zan Urtziztea obeto ikasteko asmuz. Bere lanean ziarduan Joseba'k, jolaserako asmu barik; baña ikasle zintzo onen gorputz lerden eta arpegi edeŕez birlorau ta maitamindu egin zan emakume goyarin bat, eta Joseba'ri jaŕaitzen asi. Ori igaŕi ebanean, antxiñako Joseba'k Putipaŕ'en emazteagaudik baño uŕunago iges-egin eban ikasle gazteak Alkala'ra joan zan ikasketan jaŕaitzeko. Gogoz ekin eutsan lanari, ta Joseba'k jakintzetan eta ekandu onetan egindako auŕerapenak zirala - ta, itzal andia eutsoen ikasbideak ezeze irakasleak be. Ikastaroa amaitu ebanean, irakasle-agerkaya ondo be ondo irabazi eban Joseba'k.

Ogetabost urte ebazala jaupari edo abade egin eban Joseba Urgel'go Gotzañak. Jakitun zur eta Jangoiko-zale andia zala igaŕirik, Goterki'ko atal baten ikertzale izentau eban gero, ta Joseba'k bere zeregin ori ondo baño obeto ta onura andiz egin eta bete ebelako, mendi taŕtean egozan beste eleiza batzuk be ikertu ta zuzendu egizala agindu eutsan Gotzañak. Ainbat urtean bertan bera itxita egozan kistaŕ eŕi aek bide onera ekarteko, buru-auste ta loŕa baño etzana ba'erabilan Joseba'k. Upel bete ozpiñez baño ezti tauta batzukaz euli geyago eratortzen dirala-ta, bere zeregin andi oŕetan etzan epaikari zoŕotz agertu, aita laztan eta samuŕ baño. Agirakariŕ osoro beaŕa zanean baño ez eutsan iñori egiten. Otoitz, barau ta ildura asko egiñaz, goiko laguntza lortuaz, guztiei ondo esanaz, jaupari asko lan egitera ekaŕi, eŕitaŕen aseŕeak baretu ta kistaŕ ekandu onak baŕiztau ebazan ango baseŕitaŕen aŕtean Joseba'ren lan onuratsu ori zala-ta, Gotzañak bere ordezkari autetsi eban. Aukeratze ori berebizikoa zaa-ta goraka ta txaloka artu-eben eleiz-gizon eta osterantzeko askok; baña gora ta txalo oŕeik etxakazan atsegin Josebari, ta andik alde egiteko asmua artzen dau. Izan be, bere baŕenean goitiko abotsak zirautsan: Zoaz Eŕoma'ra zure zeregin berezia antxe idoroko dozu-ta.

Esan eta egin, Urgel'go irabazpide ta obariak itxi ta Eŕoma'ra doa aŕotz-bidazti auzo. Bein ara ezkero bizitza latza dagi: barau asko ta lo gitxi egiñaz eta otoitza gogo-azkuŕi dauala, egunez-eta gabaz goiko gauzak goznartzen diardu, ainbat urtez Eŕoma'ko zazpi eleiza ospatsuenak gaben ikertzen dauzala. Eŕuki batzaŕetan sarturik, lander, gexo ta atxilotuak gogo beroz laguntzen ditu Joseba deunak, txiroai ukai asko egiñaz eta gexoak maitaro zainduaz. Alan beaŕez izurtea, gexo txaŕa zabaldu zan Eŕoma'n eta Kamil deuna lagun ebala, alegiñak-alegin egin ebazan Joseba'k, beaŕ ziran jaki ta osakayak eskuratu ta gexo txiroak batez be al baizen ondo zaintzeko Ori ta guzti be asko ilten ziran eta onein gorpuak be lepoan artuta eŕuki andiz eroaten ebazan eortzi edo luŕa emoteko.

Baña goiko argiz igaŕi eban Joseba'k umetxuen gogoak, landeŕenak batez be, jakiturez argitu ta ekandu onez aberasteke autetsi ebala Jangoikuak. Umeak azi ta eziteko zeregin andi ori berak bakaŕik egitekoa etzala-ta, lagunak bilatu, batzandu ta eŕuki-ikastoletakoa deritxan Gopatza irasi eban, ume txiroai azi-ikaskuntza ona emoteko zeregiña, Gopatz oŕen berarizko elburu egiñik. Gopatz baŕi onen araudia Joseba'k bere eskuz idatzi eban eta iru Doipuruk, batak bestearen jaŕai, zuzenetsita sendetsi eben. Joseba Narni'en egoala Ludobiki Bolonia'ko Gongotzaña igaro zan andik Eŕoma'rako asmuz. Kalasanz deun agaz autualditxu bat euki nai ebala-ta, ikertzera joan yakon Gongotzaña eta Joseba'k goi-argiz egun gitxi baŕu Doipuru izango zala iragaŕi eutsan bere ikerleari Deunaren iragarpena egin egiñean bete zan eta XV. Gergori izan zan Doipuru arek esku-zabalez ornidu ta aberastu eban Joseba'k irasitako Gopatza.

Eŕuki-ikastolak ugariut ziralako ta txiroen umeai batez be mesede andiak egiten eutsezalako, Jangoikoari zelan eskaŕak emon ez ekiala ebilan Kalasanz'taŕ Joseba, alai ta pozik; baña gitxien uste ebanean, ekaitz gogoŕa etoŕi yakon gañera, ainbeste lanez irasitako Gopatza eŕotik atera ta luŕera eratsi beaŕ ebala zirudian ekaitz izugaŕia. Eta ekaitz au mingaŕiago zan-ekion, etxe baŕuan sortu yakon Joseba'ri Lozi'taŕ Mari eritxon anai batek iñon ziran guzuŕak asmau ebazan bekaizkeriz eta gaiztakeri baltzez salatu eban Joseba Eŕoma'ko bilakari ta epaikarien auŕean. Joseba'k bere burua eŕez zuritu eban, salatariaren esanak guzuŕ utsak zirala argi ta garbi erakutsirik; baña iñartziak erabilan Sozi'k bere antzeko lagun batzuk idoro ebazan eta ekatxak buŕunbadaka ziarduan Joseba'ren lanak ondatu nairik. Jazarkunde itzal au egoaŕi andiz eroyan Joseba'k Job deunaren antzera saŕi esanaz: Jaunak emon eustan; Jaunak kendu daust: Jaunaren izen onetsa ta goretsia izan bedi. Jazarkunde latz au Jaunak laketu ebala dirudi. Joseba'ren gogoa neke ta loren sutegian garbiago egiteko. Ekatxa gogoŕen ebilanean be uste batez esaten eutsen Joseba'k bere semeai: kemen eta adorerik ez galdu, Jaunak lengo malan lasteŕ ipiñiko gaitu-ta. Jazo be alantxe alatzak egiteko eskubidea, jazo zan aldi gitxi baŕu

Jaunak alatzak egiteko eskubidea, etorkizuna ta biotz baŕuko ezkutuak ezautu ta iragarteko goi-argia emon eutsozan gizon deun au, larogei ta amabi urtegaz gexotu ta il zan eleizakoak eraspen andiz artu-ta gero. Kalasanz'taŕ Joseba'ren gorpua eortzi ta mende bat geroago be, aren miña ta biotza usteltzeka aurkitu ziran. Jaunak ain maite dituan umetxuei jakintzak eta zeruko bidea irakasten berariz nabaŕitu ziralako-edo.

E.'TAR J.

ERRIJETA

MAÑARIA

EUZKEL-IXENA.— "Azk... Beŕia'taŕ Sekunda'ren emazt... edeŕ bat ekaŕi dau, ta ugutza... ki euzkel-ixen edeŕak ezaŕi d... -amabitxijak, Arteaga'taŕ To... naola'taŕ Pele ixan dira.

Zorijonak euzko-guraso ... bijotzetiko zorijon - aguŕa, ... aŕtu eben neska-mutil begik... bek lako abeŕtzaliak etxag... Auŕera olantxe

POZEZ ETXERATU.—Igaz... lar-mendi entzutetsura juan ... bian pozez etxeratu ziran. ... edeŕak, Belakortu'taŕ Juli a... kaŕak zertzeladarik askogaz ... uskuz.

Mikel Gongotzon deunak, ... azkatu begi.

JUAN-ETOŔIJAK.—Bilbao'r... ran, Bilbao'taŕ Eŕamone, Ar... kinde ta Salome, Bernaola'taŕ Pe... kaŕa'taŕ Pele emakume zintz...

—Eloŕio'tik etoŕi zan egun ... roten Sarobe'taŕ Sebasten'an ... Oŕetza'taŕ Masimiñe abeŕtzale ... re umetxuakaz. Ondo etoŕijak.

—Igandian egon zan emen Pe... Paul, Oba'ko mendigoxale eŕi...

AGUŔTU.— Igande aŕatsal... gebazan emen, Elgezabal'daŕ L... ren eta Zoŕakin'daŕ Miren, D... emakume zintzuak.

ORAINGUAN BE ABEŔTZ... Lengo igandian txiŕinguts-ariñek... tu zan. Eta ariñeketa oŕetan be (... ko oñezkuan lez, txapeldun mu... liak ixan ziran. Lenengo sarijak, ... 'ko Barazar'taŕ Jon'ak, Mundi... berdi'taŕ Domeka'k eta Ixurtz... tegi mutilak irebazi ebezan. Zori...

Oŕatik, mutilak, orain beŕo... txiŕingutzian oŕenbeste atzera-... ixan bazendube, "bedinkaziñue... "deŕigor" artu biaŕko zendube... va,,'ko mutilak beintzat gitxiag... biaŕ ixan juazan...

Ludijak, biratan aña aldak... daula esaten juek; eta egija ... jok...

OSATETXETIK ETXERA.— ... 'taŕ Toma abeŕtzale zintzua, San ... osagiliaren osatetxian osateb... eginda, igaroriko larunbatian etx... Beraa etxeratziaz asko poztu ... txuau-gerotxuau, osatuko dalak... dalako.

Ariñ eta ondo osatu Toma, ... tzaliak eŕijan biaŕekuak dira-ta.

URKIOLA'N.—Gauŕ, ilaren ... kiola-ganian, bertako Deune... pena ospatuko da. Gure Gotzai... jak onetsiko dau. Ori dala-ta, ber... diran elizkixunak egingo dira. ... etoŕiko dan otsa da.

Geu be, mendi edeŕ oŕetara ju... gara bai, Andoni deunari geure ... zelanbait ageŕtzen. Lagun on-... -ta.

ARA BE BAI.—Zumaŕaga'n ... andijaren eŕijan, gauŕ ospatuko ... aberkoi edeŕera, be abeŕtzale bat... juango dira.

MIN-ARTUTA.—Astelenian, Be... Sekunda ziñegotzi (kontzejal) ... aŕobiŕik aŕi-iragoten iñardubala ... zauriŕu zan. Ariñ-arin osatzia ...

MAÑAR...

GETXO

ANTZEŔKI-JAYA. — Iragaŕi... zan lez, aurtemein eŕi onetan ant... na, antzeŕki edeŕa ixan zan. Alg... -Batzaŕak eraldurikua zan, Gipu... iola aundijak egin ebazan kaltiak ... duteko egiña. Eta albo-eŕiko abeŕ... tijak edeŕto erantzun eben antz... betatuteko.

Txindi pilo edeŕa batu zan eta ... dalduko doguz gure anayei lagund... ren atsekabian.

Abeŕtzaletasuna ta laguntasuna ... Euzkadi'n. areyuak nortzuk diran ... teko, ta bai adizkidiak nortzuk di... aututeko be.

EUZKEL-EGUNA.—Getxo'ko a... liak ezkara edozelakuak, gero; ab... egin biaŕ diran lanak egiŕeko eme... ba, bai izlariak, euzkel-irakasliak, ... -irakasliak, euzkel-idazliak eta aba...

Abeŕtzale oneik zeozer egin biaŕ ... beriala geŕtetan dira, ta arin gerta...

Oinguan euzkeraren aldez ixan ... txotaŕak laŕitxu egon gara, jai on... ra. Eta ona emen geure poztasuna, ... en egiŕarata ikusi dogunian.

Orain gura ixan doguna loŕtu... jai onen egun autetsija gauŕkua d... Gauŕ egun aundija dogu getxota...

Euzkel-ikasle...

Legazpi'ko Abe... txaleak ¡Eup!

Gauŕko igande onetan, Euzko - Ba... eta Emakume Abeŕtzale Batza'ren ... kundea ospatzeko, zumaŕagataŕ anay... aberkoi aundiak eratu dituzte. Jai ... ko legazpiko abeŕtzaleai dei berezi ba... ten digute.

Uri-Buru-Batzaŕ onek bera dala ... eŕi onetako abeŕtzale guziei aŕen ... die, gaur Zumaŕaga'ra joateko. Bera... re jayetan jokatu zuten alegiñakin ... erantzun beaŕen gera; Legazpi'ko ab... le guzion alegiña, Zumaŕaga'n biltze... beaŕ du.

Zumaŕagataŕari eskeŕ ordaña ... kutsi beaŕ dugu, denok Zumaŕaga'... duaz. Aspaldian ondo irabazia dute ... beaŕ ez diegun txaloa.

¡Legazpiaŕak, gauŕ denok Zumaŕ... Gauŕko poza igarotako alegiñaren ... eta etoŕkizunaren indaŕ beŕi izan ...

U.-B.-B.

ARRIETA-BITXIZALEA
Legazpi, 10. - DONOSTIA. - Urrutizkiña, 13.777.

Jesús Ostolaza
BERGARA
卐
FABRICA DE INSIGNIAS DE ESMALTE FINO
AZALIRARRI MIEZKO IKURRIÑEN OLEA

"BIYONA" LUGINTZA-ETXALDIA (Irun'en, Ilno. 313'an.)
2.000 "Leghorn" - oluak aŕautza - imiñtiak zenbatzeko abijakaz. Txiŕak atarateko aŕautzak saltzia. Olaskotxu jayopaŕijak Iru ilabeteko olandatxubak.

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3.°. DONOSTIA

MARTIKORENA
Begiyetako gaixoen sendagillea
Garibay 13 bis. 2.° - DONOSTIA

Restaurant Echeverría
Servicio a la carta y platos del país
Calle Iñigo, 8. SAN SEBASTIAN

Academia Belandia H...
TECNICO-MECANICO-QUIMICO-ELECTRICISTA
Magisterio. Preparación compl... para los cursillos convocados. Idem para el profesional. Idem para ... asignaturas de la carrera. Cuota mensual: 35 ptas. Alameda de Urquijo, 45, segundo. Teléf. 17.41...

El mejor jabón para el lavado de la ropa. Tiene abundante espuma y mucha duración

"BILORE"

Zoñekoak garbitzeko jaboi-rik onena. Bitxa ugara dauka ta iraupen aundiagoa.